



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública
y Adicciones

OSASUN SAILAREN GOMENDIOAK
EUSKADIKO UDALERRIETAN
COVID-19-AREN TRANSMISIO KOMUNITARIOA PREBENITZEKO

VITORIA-GASTEIZ, 2020KO UZTAILAREN 16A

SARRERA

Osasun Sailburuaren ekainaren 18ko Aginduak COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak ezartzen ditu, normaltasun berrira igartzeko Planaren 3. fasea gainditu ondoren eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak (COVID-19ak eragin duen larrialdi sanitarioa dela-eta, egoera berria hobeto kudeatzeko) adierazitako alarma-egoera amaitu ondoren.

Agindu horretan, prebentzioko eta autobabeseko neurrietan zuhurtziaren, segurtasunaren eta zorrotzasunaren printzipioei behatzen jarraitzeko beharra nabarmentzen da, eta dei egiten da, berriz ere, herritarrek lankidetzan jarduteko, banako erantzukizuna kutsadura ez hedatzeko lehen mailako bermea delako uste osoz.

Aginduan aurreikusitako neurriek beste administrazio publiko batzuen eskumenak errespetatu behar dituzte, bai eta, eskumen horiek baliatuta, hartzen diren bestelako neurriak ere.

Udalerrri guztiak ez dira berdinak tamainari eta banaketari dagokienez, baina haietan guztietan jardun daiteke zuzenean, pertsonen pilaketarik edo kontzentrazioarik egon ez dadin. Udal bakoitzak pertsonak kontzentratzeko arrisku handiena duten arloak edo guneak identifikatuko ditu, eta haien gainean esku hartuko du, horretarako urteko uneak balioetsiz (uda, asteburuak, jaiegunak...)

Egoera horretan, Osasun Sailak uste du beharrezkoa dela prebentzio-neurrietan eta kautela- eta babes-betebeharretan eragitea, COVID-19 gaixotasuna sakabanatzeko arriskurik eragin ez dadin eta arrisku horien eraginpean ez egoteko.

Gure herriko jaien izaera soziala eta parte-hartzailea dela-eta, zaila da oinarrizko prebentzio-neurriak betetzea, besteak beste pertsonen arteko segurtasun-distantzia eta pertsonen kontzentrazioarik eza.

Dokumentu hau tokiko administrazioek eta normalean gure udalerrietako jaiak antolatzeko tartean izaten diren gizarte-eragileek erantzukizunez jarduteko deia da, jai horiek egin ez daitezen.

Dekalogo modura, eta, betiere, Osasun Sailburuaren ekainaren 18ko Aginduan xedatutako prebentzio-neurriak betez, antolaketa-gomendio orokor batzuk ezartzen dira, eta horiek udalerrri bakoitzeko berezitasunetara egokitu beharko dira.

Herritar guztien erantzukizuna da COVID-19aren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko prebentzio- eta babes-neurriak zorrotz betetzen laguntzea.

COVID-19-AREN TRANSMISIOA PREBENITZEKO DEKALOGOIA

1. Jakinarazpen publiko guztietan herritarrei ospakizunek edo pertsonen kontzentrazioek COVID-19a transmititzeko dakarten arriskuaren berri ematea, eta herritar guztien erantzunkidetasuna aipatzea.
2. Jaien edo ekitaldien programa ofizialak egin daitezen ekiditea. Jai-ekitaldiak zabaltzeko kartelak edo bestelako bitartekoak ez sustatzea.
3. Konpartsak, blusen eta nesken kuadrillak, lagunarteak, taldeak, ostalaritza, kirol-taldeak eta gizarte-eragileak jaiak edo ekitaldiak EZ antolatzeko eta EZ ospatzeko inplikaraztea.
4. Edukiera eta pertsonen artean gomendatutako distantzia fisikoak (1,5m) kontrolatzeko moduko kultura- edo entretenimendu-jarduerak eta -ikuskitzak egiteko aukerak baino ez ematea eta, horretarako, hori guztia betetzeko neurriak ezartzea eta, bestela, ekitaldia etetea aurreikusita izatea.
5. Espazio publikoa azokako ikuskizunetarako, txosnetarako, salmenta-postu ibiltarietarako edo antzekoetarako erabil daitezen ekiditea, baldin eta haietan segurtasun-neurriak betetzen direla bermatu ezin bada.
6. Ostalaritza ixteko ordutegiak betetzea eta, hala, taldekatzeak eta alkohola beste espazio publiko batzuetan kontsumitu daitezen ekiditea.
7. Udalerrian arrisku gehien duten eremuak eta pertsonen kontzentrazioak dituzten ordutegiak identifikatzea, prebentzio-neurriak izatea, pertsonen zirkulazioa antolatzea eta espazioak pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde ahal izateko moduan banantzea edo sektorizatzea.
8. Txoko, sozietate gastronomiko, gazteen aisia-lokal eta erabilera publikoko titulartasun pribatuko espazioei ordutegiak eta araudia bete behar dituztela gogoraraztea eta betetzen dituztela zaintzea.
9. Prebentzio-neurriak ezartzea, baldin eta sare sozialen bidez deialdi jendetsuak egiten direla jakiten bada, besteak beste: barrera mekanikoak jartzea eta horiek ez ospatzeko zaintza ezartzea. Egun zehazetan, udaltzainen eta Ertzaintzaren presentzia areagotzea, indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzeko.
10. Udalerritik kanpo pertsona-pilaketa handia egon daitekeelako susmorik badago, disuasio-neurriak aktibatzea, besteak beste: ibilgailu partikularren eta garraio kolektibo publiko eta pribatuen sarbidea zailtzea.